



Ebuya eta Chemos keniarrak garaile 59. Nazioarteko Krosean.- Atletismoa arnastu zen igande goizean Hipódromoan. Goizean goizetik hasita, gatzetxo eta beterano mailako lasterketak gozatzeko eginen izan zuten bertaratu ziren ikusleek. Sertai mailako gizon-ekhoen lasterketan, Joseph Ebuya aspaldeko atletak hiru minutuko denborarekin irabazi zuen. Beterano mailako keniarrak genituen eta buruan egin zituzten helmugarainoko noroi kilometroko. Oro eraz gailenduz kan 32 minutuko denbora eginen, ia minutura sartzen zuten Samuel Ssegali erreitarari. Korrik egungo munduko kros txapeladuna ezinez aritu zen Hipodromoko lokatzean eta brontzezarren konformatu behar izan zuten. Lehen eskualdina Ivan Fernandez izan zen, bosgarren alelategia. Emakumezkoen lasterketaren berri, Milcham Chemos 3.000 metroetako munduko txapeladun irabazi zuen 24 minutu eta 21 segunduko markarekin, la eta duela bi urte bigarren izanda, arantzaxoa atzerikokatu aukera izan zuen espero zen bezala. Atzetik, Marta Tigabea etiopiarra eta Diana Martin otztopo-lasterkaria sailkatu zuten. Urtarrilako egin igandero lezu, ahiko irudiak ikusteko aukera izan zen; hamailak beteja, jendea katiuskein zirkuitu barruan, atzetik gorputzari buelta eman ezinda, salda eta bokatak han eta hemen... Bainan atletismo egin handia izan zen denentzat. Berezik! Amaia Anderego entrenatzen dituen Landaberriako lau gatzetoentzat, ahaztuko ez duten esperimentia bizi izan fiteazuten zirkuitu gogor eta lokazuatan. Kroseko argazki gutxi [txintxari.info](#) atarian.

Villa Mirentxun egin zuten aurkezpen-ekitaldia ostiral arratsaldean. Erabakitzeke eskubidearen aldeko mugimendu honen nondik-norakoak azaldu zizkieten bertan bildu ziren hamarnaka herritarrei. Hitzeg egindako azalpenak bideo proiektzioz jantzi zituzten.

Urtean zehar herrian eskainiko dituen ekintzen aurrerapena egin zuen ostiralean Lasarte-Oriako Kultura arloak. Herriko elkarteekin batera prestatutako egitaraua eskainiko dute 2014an eta hainbat berrikuntza izango da, hala nola, antzerki amateurraren programazioa.



Zalaparta sortu da Lasarte-Oriako taberna eta dendarien artean herria gertatu diren hainbat lapurreta direla eta. Hala ere, udaltzainek nabarmendu dute lapurretek ez dutela 2013an gorakada nabarmenik izan. Adierazi du urtero gertatzen direla halako lapurreta boladak.

[illegible]

Adituak dio

Talaia tik



Natalia Nogales
Psikomotrizista
Matrikulatzeko
garaia!

Otsailaren 3an matrikulazio garaia hasiko da. Gure herrian 159 haurrek izango dute lehenengo aldiz izena emateko aukera eta familia askorentzat eskola hautatzeko garaia izango da.

Haur batzuk 2 urte bete baino lehen hasiko dira eskolan. Familiak gizakitzo garrantzitsuenak heziketa arautuan hasiko da eta urte asko emango ditu bertan: irakasleak, gelakideak... Oraindik zortzi hilabete falta dira une hori iristeko eta ez da garaia haurrari horri buruz hitz egiteko. Baina gurasoentzat eskola erabakitze garaia da eta normala da beldurra izatea eta urduritzen hastea.

Gizakiaren oinarriak eta egiturak jaito eta 3 urtera arte erakitzen dira. Orain arte haurrentzat erreferenteak batez ere gurasoak izan dira, familiak ematen dizkio oinarriak. Eskolan ez da heziketa hasten, hasitakoak jarraitu eta osatzen du bertan. Eskolak ez du hezten, eskolak familiari heziketan laguntzen dio.

Orduan, zer bilatu behar dugu eskola aukeratzekoan? Familiari konfiantza eskaintzen dion eskola, segurtasuna ematen diona. Familiari heziketa prozesuan lagunduko dion eskola.

Eta eskolak? Zer eskatzen dio eskolak familiari? Hainbat ikastetxetan egoteko aukera daukat eta hezkuntzan gabiltzanok kezkatuta gaude gero eta haur gehiago etortzen direlako ohitura egokirik, araurik eta mugarik gabe... Eskola heziketan laguntzeko prest dago, baina familiak nahi behar du! Bukatzeko, zalantzarik gabe, Euskal Herrian gaudenez, euskaraz! Eta Lasarte-Oriarra izanda, herrian!

Eskolarako lehen urratsak

Oraindik hilabeteak geratzen direla iruditut arren, etxeko txiki askok eskolan, hezkuntza arautuan hasteko taldia izango dute irailetik aurrera.

Ikastetxea hautatzea da eman beharreko lehenengo urratsa, gurasoen erabakia da eta garai honetan hainbat zentroetatik informazioa iritsiko zaie etxera. Eskaintza zabalda da gaur egun, herriko mugetatik at erraza da eskola aukitzeko ere autobus zerbitzua askok eskaintzen dutelako adibidez.

Hezitzaileei galdetuta, aukeraketa eskola berak eskaini ditzakeenetik haratago doa. Aduituak azpimarratu moduan, umearen heziketa etxean gauzatzen da eta eskolak bide horretan laguntza ematen du eta ez alderantziz.

Badiardi eskolaren esku uzten dela heziketaren parte hainbat bai eta etxean jasotzen denari garrantzia gutxi ematen

diotela zenbait gurasok. Eskola aukeratzeko garaian, instalazio onak bilatu daitezke, ahalik eta hizkuntza gehien eskaintzen dituen, herrian egotea... Baina gurasoek euren seme-alabekin egin nahi duten bidean bidelagun izango duten hezkuntza eredu edo zentroa hautatu behar dute. Esan behar da ere korronte bat badagoela umeak etxean heztearen aldekoa.

Dena dela, umeak, dena ondo bidean, urte asko egingo ditu orain aukeratzaren den ikastetxean eta bertan sortuko dira bere lehenengo harremanak, lagunak, irakasleak...

Aldi berean gurasok eroso sentitu behar dira egiten duten aukeraketeekin hemendik aurrera euren etxeko txikia ordu askotan ikastetxe eta irakasle batzuekin geratuko direlako.

Hitz eta pitz

Zer hartzen duzu kontutan eskola aukeratzekoan?



Xabier Lasa

Nik uste dut norberak bizitako esperientzia oso kontutan hartzen dela. Esaterako, Andoingo ikastolan ibilia naiz, eta garai haietatik erreferentzia onak nituen zentro horren aldeko hautua egin nuen. Bestalde, kalitateko hezkuntza eskaintzea eta euskal kultura zaindako duen hezkuntza izatea ere oso garrantzitsua iruditzen zait. Jakina, hizkuntza maila ere oso kontutan hartzen da.



Susana, Olatz eta Gorka

Galdera ez da erraza, baina uste dugu gauza askori begiratzaren zaila haurri eskola aukeratzeko orduan. Esaterako, erabaki beharreko lehenengotarikoa gauza zentroa publikoa edo pribatua izango den izaten da. Guretzat ikastetxeak duen euskara maila ere garrantzitsua da eta nola ez, prezioa ere bai garai hauetan. Baina gauza guztien gainetik guk uste

dugu ahoz ahoko komunikazioak funtzionatzaren duela. Hau da, zure ingurukoek, senideek, lagunak etab. bizitako esperientziak nolakoak izan diren oso kontutan hartzen dela uste dugu. Hauek kontatzen dizutena edozein iragarki baina hobea izaten da, informazio fidagarriena. Oraindik ez gara guraso, baina iritsiko da halako gauzetan pentsatzen hasteko momentua.



Mertxe Zamora

Nik ez dut haurrik eta orduan ez dut horretan pentsatu beharrik izan. Baina uste dut hezkuntza sistema ona eta irakasle onak izatea izango nukeela kontuan. Eskola orduz kanpoko jarduerak aukera zabalda izatea, hizkuntza, kirolak, gauza artistikoak... Haurrek ekitzita horietaz gozatzen dute eta era hone-tara, nahi dutena aukeratu dezakete.

Iruditzen

Eskolara joateko garaia



Oriako umeak ospakizun batean 50. hamarkadan. AGIRRESORONDO

Egun txikitatik haurtzaindegi edota eskolara bidaltzen dira umeak. Eskolan bi urterekin hasi eta derrigorrez 16 urtera arte egoten dira. Orian esaterako, Brunet familiak eskola ireki zuen bere langileen seme-alabentzat 6 eta 14 urte bitarteko haurrak joaten ziren bertara nahiz eta arruntena, 9 urterekin lantegian lanean hastea izaten zen. Neskek eraikin batean zuten ikasgela eta mutilak beste batean. Ikasgeletan denetatik lantzen zen eta erlijioak leku garrantzitsua zuen. Gerra ondoren, "Formación del espíritu nacional" irakasgaia ezarri zen eskola guztietan erregimenaren ideiak zabaltzeko.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko irizti-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Txikun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
C-20407557
Legezko gordailua:
SSS13/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zerota Multimedia, S.A.
Aleak zenbakia: 7800

txinbarri

Eredakzioa:

Nerea Ezpinate, Maider Azumendi, Jon Aluna E.
txinbarri@txinbarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Aritzeta Arcoia
publizitatea@txikun.com
administrazioa@txikun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Maialen Arri, Aiger Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirta, Edu Galardi
Informazioak:
Xabier Armas

GURE ESKU DAGO

Gure Esku Dago ekimena aurkeztu dute

Villa Mirentxun egin zuten aurkezpena, ostiralean



50 bat lagun bildu ziren ostiralean Gure Esku Dago ekimenaren aurkezpene-ekitaldira, amaitzean, afari-merienda egin zuten.

Gure Esku Dago ekimeneko lan-taldeak "erronka" hitza erabili du ekimenaren 8an Durango eta Iruñea lotuko dituen giza-katea deskribatzerako orduan. Baina herri mailan ere "ilusioa eta gogoia" piztu nahi dituzte herritarren mugimendu indartsua sortzeko.

TXINTXARRI

Villa Mirentxun familia giroan egin zuten aurkezpene-ekitaldia ostiral arratsaldean. Erabakitzeko eskubidearen aldeko mugimendu honen nondik-norakoak azaldu zizkieten bertan bildu ziren hamarnaka herritarrei. Hitzeg egindako azalpenak bideo proiektioz jantzi zituzten eta amaitzean afari-merienda txiki bat egin zuten.

Egun handia ekimenaren 8a izango da. Usurbilekin batera, Uharteko-Arakil inguruan egokitu zuten zulo Lasarte-Oria 2 kilometroko tartea osatzeko.

Guztira herriko 500 pertsona beharko dituzte Durango eta Iruñea arteko katea gauzatzen laguntzeko.

Lehen mugarria, aurretik, otsailaren 15ean jarri nahi dute ordea. Jaialdi erraldoia egiteko asmotan dabilza, eta horretarako herriko elkarteak "babesa" eskatu dute. Egun horretan irekiko dituzte giza-katean parte-hartzeko zerrendak eta apirilaren 5era arte egongo dira irekita. Izen-ematearen prezioa 5 eurotako da. Egun horretan zerrendak behin-behinean itxi egingo direla aurreratu dute.

Gutxienez-gutxienez, Euskal Herri mailan 50.000 lagun

behar dira katea osatzeko, baina ez dute baztertzeko 100.000 pertsonetara arte iristea.

Lan-taldean aritzeko deia

Oraingo, Oihana Beltran, Mikel Arruti, Enara Ilegi, Maria Mungia del Pozo, Gorka Lasa, Itsaso Izagirre, Nerea Arteaga, Lorena Garcia eta Sandra Barkaiztegi aritu dira herriko lan-taldean, baina parte-hartu nahi duen "edonorentzat" atek irekita dituztela azpimarratu dute. "Ez ditugu alderdi politiko bateko edo besteko etiketak nahi, pertsonak nahi ditugu", adierazi du lan-taldeak.

Ostegunetan biltzen dira, 21:30etan. Haiekin kontaktuan jartzeko Gure Esku Dago Lasarte-Oria facebook kontua erabiltzeko eskatu dute. E-posta laster jarriko dute martxan.

SANTA ESKEA

Erketz EDT-ren entsegua

Ohiturak berritzeko asmoz, otsailaren 4ean, Santa Eskean aterako dira hainbat talde Lasarte-Orian.

Horietako bat Erketz eta Erketz-eko lagunren taldea izango da. Hauek Zumaburu ikastetxetik aterako dira arratsaldeko 18:30ean eta herriko, zein inguruko baserrietan eskeia egingo dute.

Hau prestatzeko otsailaren 3an, astelehena, entsegua egingo du taldeak 20:00etan Zumaburu ikastetxeko lokalean.

HEZKUNTZA

EPA-HHI-ko matrikula garaia

Lasarte-Oriako EPA-HHI-k Graduata edo Goi mailako sarbide probarako matrikula egiteko epea ireki du gaur.

Graduata ateratzeko ikasketak egin nahi dutenek edo Lanbide Heziketako Goi Mailako sarbide probak prestatu nahi dituztenek gaurtik aurrera egin beharko dute izena ematea.

EPA-HHI-ko arduradunek adierazi dutenez, herritarrek zentroan eskaintzen diren beste ikasketetan ere matrikula daitetzeke.

Interesa duten herritarrek www.epalasarte.es web orrialdean ikasgai eta izena emateari buruzko zehaztasun gehiago aurkituko dute.



OGI BERRI

Josean Sagarnaren 1.500 euro

Pablo Mutiozabal kaleko Ogi Berri dendak Gabonetan 1.500 euroko saria eskuratu ahal izateko zenbakiak banatu zituen bere bezeroen artean.

Azkenean, sarluta 76254 zenbakia izan zen eta ostiralean jaso zuen saria Josean Sagarna herritarrak.

Duela egun batzuk zenbaki saridunagatik galdetu zuten dendan izan ere, hau eguneroko ikusten zuten eta saria jaberik gabe geratuko zela komentatu zuten dendariarekin. Etxera iristean, Gabonetako loteria artean zituena begiratu, eta saria berarentzat zela konturatu zen. "Sekulako poza hartu genuen etxean, ez zait inoiz halakorik egokitu eta gainera dendara behin eta berriro joanda, beste zenbaki bati begiritzen nion, ez zozketakoa".

Diruarekin bilobei zerbait erosiko diela esan zuen Sagarnak eta bide batez, ematearekin egin behar dituen oporretan gatazkotua duela ere esan zuen pozik.

IKASTAROA

Diafreo ikastaroko izena ematea

Takun kultur elkarteak Diafreo ikastaroa antolatuta du otsailaren zehar.

Gorputzaren bidez, arlo fisiko, emozional, mentala eta energetikoa bildu, ikertu eta orekatzen laguntzen duen metodologia da diafrea. Aldi berean, emozionalki uzurduz horien esanahia ulertuta, tentsioen jatorria sentitu, ulertu eta zailtasunak gainditzeko baliabideak lantzen dituzte.

Gurutzte larazuta herritarrek gidatuko dituzte saioak eta otsail-eko astelehenetan eskainiko dituzte Danok Diel elkartearen egoitzan. Bi txandatan izango da aukera parte hartzeko, bata 15:00etatik 17:00etara izango da eta bestea 17:30etik 19:30era.

Ikastaroan parte hartzeko aurrez izena eman beharko da Takuneko bulegoan. Urtarrilaren 31a ostiralean itxiko da epea. Ikastaroak 22 eurotako kostua du eta bazkideek berriz, 20 euro ordaindu beharko dituzte.



Jacinta Hervasek 100 urte bete ditu-

Urtarrilaren 22an bete zituen 100 urte Jacinta Hervasek lasarteiarrak. Villamayor de Calatravakoa (Ciudad Real) da jaioz, baina 1954an sorteria utzi eta Bilbora joan zen bizitzera Agapito Coronel senarrarekin batera. Handik Martutenera eta 91 urterekin herrira etorri zen alabaren etxera. Gaur egun, Irungo Caser-Anaka zentroan bizi da. Seme eta alaba bana ditu Jacintak, bost biloba eta lau birbiloba ere bai. Familia giro goxoa, seniden alboan ospatu zuten mendeurrena Hervasek larunbat eguerdian. Momenturik hunkigarriena agian bi birbilobak poematxo txiki bat irakurri diotenean bizi izan zuten senitatekoek. Haiengatik egin duenagatik eskerrak eman eta Jacintaren "esfortzu eta ausardia" goratu nahi izan dituzte txikiok. Ahaideek azpimarratu dute emakume "oso indartsua" izan dela betidanik, "osasuntsu jatea" atsegin izan duela eta gazte garaietan "miseria" asko bizitakoa izan zela. Horrek guztiak lagundu omen diu "gogortu" eta 100 urteraino iristen. Goiza modu politean amaitzeko, Jacintak berak gazte garaiako bi abesti larun kantatu ditu eta emozio handiko momentuak izan dira denentzat. Bestalde, herriaren izenean zoriorenak emateko bertan izan da Pablo Barrio herriko alkatea eta arrosa lore-sorta ederra eman diu opari.

Kultura eskaintza, herriko elkarteekin elkarlanean

Udaleko kultura egitarauan hainbat berrikuntza izango dira aurtur

Lasarte-Oriako Kultura arloak urtean zehar eskainiko dituen ekintzen aurrerapena egin zuen ostiralean eskainitako prentsaurrekoan. Herriko kultura elkarteekin batera prestatutako egitaraua eskainiko da eta hainbat berrikuntza izango da, hala nola, antzerki amateur programazioa.

TXINTXARRI

Boris Nogales kultura zinegotziak eta Xabier Goitia Manuel Lekuona kultur etxeko arduradunak ostiralean 2014. urtean kultura arloan aurrera eramango diren ekimenak aurkeztu zituzten.

Boris Nogalesek azpimarratu legez, "herriko taldeekin elkarlan handiena egiten duen arloa da kultura eta haien ekintzak sustatu eta laguntzeaz gain, hauekin batera egitarau osatu bat egiteko aukera ikusi dugu".

Era honetara, kultura eskaintza indartu eta Manuel Lekuona ostiralero ekintza-leren bat egotea bermatu du Udalak.

Zinea

Kultura buuruak azaldu legez, departamentuaren lehentasunetako bat, Lasarte-Orian zinea bultzatzea izan da.

Lehenik, Okendo zinema taldearen osteguneko zine forumeko filma ingandetan eskaintzen hasi zen.

Okendo Zinemaren programazioa ez dagoenean, departamentuak lidergo har-

tuz, nobedadeak diren pelikula eskaintzen hasi zen.

Eta azkenik, zine-foruma ostegunetik-ostiralera aldatu dute, "jende gehiago hurbiltze aldera".

Honetaz gain, Danok Kide elkartearekin elkarlanean, Urpeko zine zirkloa antolatzen du Udalak. III. zirkloa izango da aurtengo eta otsailaren 3, 10 eta 17an izango da, berrikuntza batekin, "otsailak 10ean goizeko saioa izango da herriko ikastetxeko ikasleei zuzendutakoa".

Dantza eta antzerkia

Zinea ez da berrikuntzak izango dituen atal bakarra.

Haur antzerki, helduei zuzendutako antzerkia edo dantza profesionalaz aparte, herriko kultura eta dantza elkarteekin batera 8 saioetako amateur egitarau bat osatzen ari dela aipatu du Kultura sailko arduradunak.

"Egoera ekonomiko dela eta, ezin dira nahi ditugun ikuskizun profesionalak programatu, beraz, egitasmo honen helburua herriko elkarteekin programazio amateurren sustatzeko eta programatzeko aukera izatea da".



Boris Nogales eta Xabier Goitia kultura arduradunak aurkezpenean.

Semblante Andaluz, Kukuka Antzerki eta dantza eskola, Erketz EDT, Lan eta Lan antzerki taldea eta Emakumeen zentroko antzerki taldeak haien ekarpenak egingo dituzte.

Lehenengo hurrengo ostiralean, urtarrilaren 31ean izango da Manuel Lekuona, Lan eta Lanek proposatutako "Sauna Deluxe".

Profesionalaren arloan, iaz eginiko esfortzua mantendu nahi du ere Udalak.

Dantza profesional zirkuitu mantenduko dute, baina Eusko Jaurlaritzak diruz-laguntzen duen Kale antzerki programa zintzilik dago.

Hau guztia kontuan izanik, urtean zehar, 8 haur antzerki saio; helduen 2 antzerkia saio; amateur egitarauko 8 saio eta Lasarte-Oria Dantza Zirkuituko 3 saio eskainiko dira.

Honetaz aparte, Udalak Semblante Andaluzen Andaluzia eguneko ospakizunetan, maiatzaren Erketz EDTk antolatutako Dantzari Txiki egun eta ekinean Kukukaren Hamabostaldian lagunduko du.

Musika astea

Musikari dagokionez, dagoeneko herriko musika elkarteekin aurtengo musika astea antolatzeko lanean ari direla jakinarazi zuen.

"Aurtur, asteen zeharreko programazioa izan beharrean bi asteburuetako programazioa egitea proposatu dute," aurreratu du.

Programazio horretan, lirika, orkestra eta arlo ezberdinetako musika izango da. Gainera, elkarteekin hitzartuak dauden ekintzez

gain, maiatzaren 11. Euskal Herriko Batukaden Topaketa izango da eta azaroan Akordeoi Jaialdia ere ospatuko dira.

Ipuin-kontalaria

Liburutegian ere berrikuntza bat izango da.

"Orain arte, ikasturte hasieran izaten genuen irakurketa-sustatzeko programa. Aurtur, programa urtarri-lean hasiko da".

Hilabetero egingo dira saioak eta euskaraz izango dira. Kultura sailko arduradunak azaldu moduan, bitan banatu dira saioak, "batzuk, 3-5 urte artekoak izango dira eta haurrek erabakiko dute zein libururen irakurketa egingo den; besteak, 6 urteko gorako saioetan, berri, kontaketak izango dira eta kasu batzuetan, begiraleak moztarotuta egingo dira".

Lehen saioa ostegun honetan izango da, 3 eta 5 urte arteko haurrei zuzendutako izango da eta haur liburutegian egingo da 18:00etatik aurrera.

Hurrengo saioak otsailak 11 eta 27, martxoak 11 eta 17, apirila 24, maiatz 13 eta 29 eta ekaina 10ean dira.

Hau guztiaz gain, udan Okendo Zinemaren taldearekin batera Udalako Zinema eta Sendokoi taldeak antolatzen duen Santa Ana artisautza azokaren XXX. urteurrena ospatuko direla ere aurreratu zuen.

Euskal Inauterietako konpartsa-entseguak otsailean zehar

Hilabete besterik ez da falta Inauterietatik hastera. Lasarte-Orian, martxoaren 1ean eta 2an ospatuko dira. Larunbatean musika izango da nagusi, igandean, berriz, euskal inauterietatik hartuko dituzte kaleak. Itakun elkar-teea dagoeneko lanean da inauterietatik ingandako guztia prest izateko.

Mozorroiei azken ukituak ematen egingo dira herri-asko. Lau aste besterik ez dira geratzen Inauterietatik ospatzeko eta Udalak eta konpartsa elkar-lanean ari dira egitaraua lotzeko.

Itakun K.E. Euskal Inauterietatik konpartsa-entseguak antolatzen hasi da eta igandean ohi bezala, Lantz-eko eta Euskal Herriko inauterietatik doinuen gure herriko kaleak girotu eta alaituko dituzte.

Entseguak

Elkarteko kideek jakitera eman dutenez, Inauterietatik konpartsa-entseguak hurrengo asteen hasiko dira. Beraz, konpartsa dantzan atera nahi duten herri-arek, pausok gogoratu edo euskal dantzetan trebatzen hasi nahi dutenek otsailean zehar izango dute aukera.

Entseguak otsailko asteartean, otsailak 4, 11, 18 eta 25ean izango dira Zumaburu-Sasoeta ikastetxeko Sasoetako gimnasioan, 20:00etatik 21:30era.

Era honetara, martxoaren 2ko herriko kaleetatik barrena dantzatuko dituzten doinuak besteak beste, iparraldeko musikariek edo Ixabel soka dantza ikasiko dituzte.

Urtero legez, goiz eta arratsaldean aterako da konpartsa dantzan. Arratsal-



Euskal Inauterietako konpartsa-entseguak lanean ari da eta inauteri igandean herriko kaleak alaituko ditu euskal doinu eta dantzekin.

dean gainera, Okendo plaza irristean hartza erreko dute.

Pertsonaiak

Dantzan atera nahi ez duenak ere, iazkoaren antzerki txantxoak jantzeko aukera izango

du. Baina Itakun elkarteko kideek aipatu dutenez, euskal inauterietatik beste pertsonaiek ere jantzi daitezke.

Hartza, mamoxorro, sorginak, joaldunak... euskal inauterietan hamaika pertsonaia

daude eta etxean ditugun oihalek dantzi-entseguak eiderki moldatu daitezke besteak beste, Miel Oxinen antzekoa moztarotuta edo zakuz egindako Ziripoten edo ferrazalearen antzekoa.

Lapurreta kopurua azken urteen mailan

2013an garaieatan lapurretak igo diren arren, komertzioetan gutxitu egin dira

Azken hilabeteetan Lasarte-Oriako taberna eta dendarien artean kezka zabaldu da gertatu diren hainbat lapurretarela eta. Hala ere, udaltzainek diote urtero gertatzen direla halako lapurretarela boladak eta datuei erreparatuta ez dela 2013an gorakada nabarmenik izan. Hala ere, hainbat gomendio ematen dituzte etxean, autoetan zein denda eta tabernetan lapurretak ekiditeko.

Maidar AZURMENDI

Herriar askoren ahotan izan dira 2013 bukarran herrian gertatutako lapurretak. Hala ere, larritzeko arrazoirik ez dagoela diote udalek.

"Datuek urtero mantentzen dira. Boladaka izaten dira gertakari gehienak, eta urte batean mota batetako lapurretak igotzen dira eta beste batetakoak jaitsi eta alderatzen. Bizi dugun krisi ekonomiko garai larri honen testuinguruan, ez dago lapurretarela gorakada nabarmenik".

Datuak

Lasarte-Oriako udaltzaingok emandako datuen arabera, ibilgailuen lapurretari dagokionez, 2011 bat eta 2012an beste bat lapurtu ziren eta 2013an beriz, 4 izan ziren, aldatu dena da, "2013an motoak lapurtu dituztela eta aurrekoetan ez".

Ibilgailu barruan egindako lapurretak ordea, behera egin dute. 2011ean 70 izan ziren, 2012an 69 eta 2013an 52. Garaie eta baxuetan beriz, gorakada gertatu da. Udaltzainek diotenez, hauetan lapurretak batez ere txirrignak onak bilatu dituzte azkenaldian.

Etxeetan gertatutako lapurretetan, 2 salaketa izan ziren 2011 eta 2012an eta 2013an 3. Pertsonen egindakoak, 2013an batez ere asteazkenetan, azoka egunean gertatu direla azpimarratu dute udaltzainek eta 15 izan dira jasotako salaketak.

Dendetan beriz, behe-rakada izan da lapurretarela

kopuruan, 2011ean 16 gertatu ziren, 2012an 11 eta 2013an 9. Enpreetan 2012an bezala, 4 lapurretarela jazo dira.

Iruzurrak

Udaletarik argitu nahi izan dute datu hauek udaltzainek jasotakoak direla "Erantzairangana zuzenean jo denean, gerta daiteke datu hauetarik kanpo geratzea salaketa hori". Hala ere, udaltzainek jakinarazi gainean jartzen dute bizi Erantzairak edozero gertatu dela.

Bestealde, udaltzainek jasotzen dituzten salaketak guztien artean, iruzurrak ere badaudela diote. Hau dela eta, herrian bazaltzen diren lapurretarela edota bestelako gertaeren inguruko zurrumurruak ez direla sinetsi behar diote udalek. Kasu hauetan ikerketak zabaldu dira eta Erantzairaren elkarlanean argitu dira horietako batzuk.

Kaleetan ahoz aho gehien zabaldu diren gertakariak pistolarekin egindako hiru atrakak izan dira. Kotxeraren kokatuta dagoen D4 dendan, Aldaz hortz klinikian eta azkena Telepiztan. Ertzaintzak gauzatu dituzte udaltzairen lapurretarekin. Armas egindako lapurretaren kasuan, 2011ean 1 egon zen, 2012an 1 eta 2013an aipatutako 3rak jaso dituzte nahiz eta azkena 2014ko lehen egunetan izan den.

Egoera larria ez dala azpimarratuta ere, udaltzainek hainbat gomendio ematen dituzte lapurretak nolabait ekiditeko. Udaltzaingoa-ren telefonora deituta informazio gehiago eskuratu daitekeela



Udaltzairen arabera lapurretarela kopurua azken urteetakoan antzekoa izan da 2013an.

ere gogoratzen dute 943 362442.

Aholkuak

Lapurretaren biktima ez izateko zenbait jokaera hartu behar da kontuan. Udaltzaingoa zenbait aholku ematen ditu gaizkilean jarduna eragozteko.

Kalean, "ahal dela, ez ibili leku bakarti edo argitasun gutxiarekin. Behar duzun dirua baino ez eraman, eta hainbat sakelatan banatuta. Poltsa aurrealdean gurtzatu-ta eraman. Saiatu kutxazain automatikoak bulego orduetan erabiltzen, bestela bulego barruko kutxazainak erabili, eta ez ahaztu atea blokeatzeaz barruan zauden bitartean. Eska ezazu laguntza oihuka erasotzailea beldur dadin eta beste pertsona batzuen arreta erakartzeko. Ez onartu kaleko salmentarik".

Etxean esaterako, "etxetik kanpo iristen zaren guztietan itxi atea giltzak. Saiatu etxean objektu baliodunak ez metatzen, eta halakorik baduzu egin inbentarioa. Ezkutatu dokumentazio garrantzitsua, batez ere sinadura duena (aurrezki-libretak, ordain-txartelak). Ez utzi ezezaguneri sartzen; zerbitzu teknikoek kasuan, eskatu ziurtagiria eta egiaztatu. Etxetik irteetan, denbora gutxirako bada ere,

egiaztatu ate eta leihoak ondo itxita daudela. Alda ezazu sarriala etxebizitza berri batera aldatzen zaren bakoitzean, giltzak galdu dituztunean edo etxean lanak egin eta langilearen batek giltzak erabili ditue-nean. Etxera iristean sarriala puskatu dutela ikusten baduzu, ez sartu: hatz markak ezabatu edo lapurrak barruan aurkitu, deitu Udaltzaingora berehala. Garrantzitsua da ere ez aipatzea jendaurrean opor-rak egitekoetan zarella eta etxeari hutsi geratuko dela".

Autoari dagokionez, atek behar bezala itxi. Saiatu ibilgailua argizatuta dauden lekuetan aparkatzen. Garaie komunitario batean aparkatzen bada, sartu eta irteetan egiaztatu bertako atea guztiz itxita gertatzen dela. Inoiz ere ez utzi etxeko giltzak edo garaieko agintea ibilgailuaren barruan. Irtsi-tresna finikorik baduzu, estali. Ateratzeko moduko bada, kendu, segurtasun handiagoa izateko. Ez utzi balioudun gauzarik bistan, ez eta barruan tresna teknologikoak daudela sala dezakeen gailurik ere. Semaforeetan, gaizlodeginean edo bestelako lekuetan gelditzen zarenean, erne egon eta saiatu leihoak igota eta atek blokeatuta edukitzen. Bidaiearik egiten baduzu, eta aldi baterako hiritik kanpo bazoaz, ez utzi ibil-

gailua luzaro leku berean aparkatuta, norbaitek lekuz aldatzea komeni da".

Dendetan, itxeko sistema ziurrak jarri. Instalatu kanpotik ikus daitekeen zaintza sistema. Itxi aurretik egiaztatu barruan ez dela inor gertatzen. Euduki fatxadako argiak piztuta itxeko, sarriala eta pertsi-anak manipula ditzaten eragotziko da horrela. Ez da komeni azken ordura arte itxarotzea kutxa egiteko, hobe da jendea oraindik lanean ari denean, eta publikoaren ikusmenetik kanpo egitea".

Lapurretarela ondoren

"Lapurretarik gertatu-zero gero nola jokatu jakitea garrantzitsua da ondorioak ahalik eta txikielarik izan daitezken".

Berehala ohartarazi Udaltzaingoa, "eta helbide zehatza eta telefono bat adierazi. Beharrezkoa bada, eskatu laguntza medikoa 112 larrialdietarako telefonora. Ez ezer ukatu eta ez utzi inori sartzen lapurretarela izan den lekuan. Ez hartu jarrera heroikorik, pertsonen segurtasuna da garrantzitsuenak. Erreparatu erasotzailearen ezaugarriak: adina, garaiera, ilearen kolorea, azentua, jan-zerka, norantz egin duen ihes eta abar. Informazioa zenbat eta zehatzago izan, handi-agoak izango dira gaizkileak aurkitzeko aukerak".

3 ALTUERETAKO HAUR PARKE BERRIA, KAFETEGIA, URTEBETETZEAK OSPATZEKO MERIENDAK, BABYPARK ETA APARKALEKUA

PILOTEN IGIBILEKUA, FUTBOL TELAIA, OKE ELASTIKOA, ZUBIAK, LABIRINTOAK ETA JOKO MORDO BAT

SALTOKA ETA INBIBARREZ EGOTeko

ZURE URTEBETETZE FESTA

GUREN DINAMU EGATZU!!!

Oria Etorbidea 8, Brunet Pellig., 26 - Lasarte Oria

EGUNERO IREKITA

Zure urtebetetze eguna ospatzeko erreserba egin ezazu 657853091-ra deituz

ARETO-FUTBOLA.

Bigarren itzulia hasi dute ISU eta Aldazek

Aldaz H.K.-ak 3-0 irabazi dio Elorrioko Buskantzari, erreskadan bosgarren garaipena lortuz

Areto-futboleko taldeak lehen faseko bigarren itzulian sartu dira. Aldaz H.K.-ak aste honetan Elorrioko Buskantza izan du aurrez aurre eta 3-0 irabazi dio etxean. ISU Leihoak taldea laugarren postuan dago eta bigarren itzulian lehengo urteko gorpuzaldia berreskuratzen saiatuko da

TXINTXARRI

Aldaz H.K. eta ISU Leihoak taldeak denboraldiko bigarren itzulia hasi dute. Bi taldeek hasiera kaxkarra izan dute, baina aurreratzean hobera egitea espero dute entrenatzaileek.

Nazional III. Mailan Aldaz H.K. lehengo asteen hasi zuten bigarren itzulia eta eduki gainera.

Oscar Garcia entrenatzaileak aipatu digunez, "lehen itzuli honetan taldea irregularraren izan da". Etxean bi partida irabazi eta kanpoan bi edo hiru partida garrantzitsu aurrera ateratu dituzte aipatu digu.

Lehengo asteen, Tolosala Hirukide 1-4 gairatu zuten eta azken hiru partidak irabazi ostean, "beste egoera batean gaude. Taldea jokatzen hasi da eta gure atea zerora mantendu dugu. 8. gaude saikapean eta beheko postuetatik urrunditu gara. Ea horrela mantentzen garen".

Izan ere, bi edo hiru partidak galdutz gero, "berritxo ere

saikapeneko beheko zatian egongo ginake" ohartarazi du.

Aldaz HK gora begira

Aste honetan, Elorrioko Buskantzaren aurka jokatu du. Saikapeneko 6. eta 8. taldeen arteko norgehiagoka izan zen kiroldegian.

Partida gogorra aurreikusten zen, baina norgehiagokari ezin hobeto ekin zioten etxeko gizonak eta 3. minutuan Gorka Estebanek sekulako gola sartu zuen David Hidalgoekin pareta egin eta zertorkion bezala baloia astinduta.

Handik bi minututa David Hidalgo berak sartu zuen gola bakarkako jokaldi batean Aldazeko defentsak baloia ondo berreskuratu ostean.

Atsedendira emaitza horrekin iritsi ziren, eta Elorrioko mutilek atezain-jokalaria atera behar izan zuten azken 10 minutuetan. Aldazek ez zuen barkatu. Asier Perezek 30 metroko jaurtiketa luzea egin eta bere zelaitik lasaitasunaren gola egin zuen.

Pozik zen Oscar Garcia



Nagusiz izan ziren Aldaz H.K.ko mutiak larunbatean kiroldegian jokatutako partidari, 3-0 irabazi zion.

prestatzaileak partida amaituta: "Lan ederra egin dute mutilek, hasi eta buka kontrolatu dugu neurketa eta merezita irabazi dugu. Taldeak izugarri hobetu du Gabonetatik hona, bost garaipen lortu ditugu erreskadan eta denboraldia amaitzeko 12 partida falta diren arren, salbazioa geroz eta gertugoa ikusten dugu".

Bi datu taldearen bilakaera nabarmentzeko: lehen itzulian 4-5 irabazi zuen Aldazek Elorrion, justu-justu, eta azken hiru partidatan hiru gol besterik ez ditu jaso.

ISUren hasiera txarra

ISU Leihoak taldeak, berriz, lehengo asteburuan amaitu zuten lehen itzulia. Tellatuberrri Zaldibiren aurka jokatu zuten azken partida hori eta 2-4 galdut zuten. Eta honetara, saikapeneko 4. postuan dago herriko taldea.

"Aurten okerrago hasi gara. Lehen partidetan ongi egin genuen. Azken partidak, aldez, nahiko txarrak izan dira eta lehen postuetako arerioak izan ditugu", adierazi digu Eneko Molina ISU H.K. entrenatzaileak.

Baina taldeari ongi etorriko zaiola ere aipatu digu, "aurreko urteetan lehen itzuli ona egin eta bukaerako lasaiegi zegoen taldea. Honek bigarren buelta hau indarrez hartzea ekarriko du".

Aste honetan Hirukide Plomix Fronton kafetegia izango dute aurrez aurre. "Partida borrokatsu izango da. Etxean jokatzen dute eta bertan jokatzea zaila da, frontoi bat delako. Joko ona egin beharko dugu eta defentsan ere ongi ibili beharko gara garaipena eskuratu nahi badugu".

JUDO.

Judoken esperientzia ederra Tortosan

Aurreko bi asteburuetan ALOKEko judokak Tortosan izan dira Espainiako kopako saioetan lehian. Urtarrilaren 11 eta 12an, Ander Garrido eta Yeray Mendibek infantrialak izan ziren bertan eta hurrengoan, 18-19, Mario Garrido juniora. Ez zuten dominarik ekarri, baina Mariok brontzea borrokatu zuen.

Mario Garridok lehiaketa oso ona egin zuela aipatu digu Gorka Aristegi entrenatzaileak.

Lehen borroka katalan baten aurka irabazi zuen, bigarren borrokan valentziar batek kaleratu zuen.

Bigarren aukeran ederki ibili zen eta bi borroka irabazi ostean, hirugarren postua eskuratzeko buruz-burukoa Gaztelu-Mantxako gazte ba izan zuen aurrez aurre. Baina ezin izan zuen garaitu.



Mario Garrido judoka entrenamenduan lanean.

Esperientzia hartzen

Infantilei dagokionez, Gorka Aristegi LOKEko entrenatzaileak aipatu digunez, "gure judokak 1. urteko infantrialak dira eta lehiaketa gogor baten ederki gozatu zuten. Bientzako oso esperientzia ona izan da".

Ander Garridok bi borroka izan zituen. Lehengoan Extremadurako gazte bat garaitu

zuen, bigarrenean berriz, katalan baten aurka galdut zuten. Ezin zen bigarren aukeratu sartu.

Yeray Mendibek, aldez, hiru norgehiagoka izan zituen eta bigarren aukera borrokatu zuen. Valentziar bat irabazi eta gero, asturiar baten aurka galdut zuten. Bigarren aukeran, valentziar batek kaleratu zuen.

EH-ko Mus txapelketa Xirimirin

Euskal Herriko Mus txapelketako herriko saioa jokatu da urtarilak 31ean, 22:30etatik aurrera, Xirimiri elkartearen. Bikote irabazleek osailaren 15, 16 eta 17an jokatu diren herrialdeko sailkapen saiorako txartela eskuratuko dute.

Baina sailkapenaz gain, Lasarte-Oriako bikote irabazleak Goiegi jatetxean 2 laguntzako menu berezia izango du sari gisa, bigarren sailkatuak txuletak eta ardo botila eta hirugarrenak oilaskoak.

Herrialdeko gaundituz gero, Heletan martxoaren 8an jokatuko den finalean izango dira bikoteak. Bertan txapela, 3.000 eurotako saria eta Karibera bidaia egongo dira jokoa.

Izena ematea egunean bertan egingo da 22:00etatik 22:00era. Parte hartzen duen bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Txapelketako araudia www.euskalherrikomustxapelketa.org orrialdean eskuratu daiteke. Antolatzaileek herriarrek animatzen dituzte honetan parte hartzera.

Altuna hirugarren Laplume-ko ziklo-krolean

Inigo Altuna Bazpi txirrindularitza eskolako gaztea lehengo igandean, urtarilaren 19an, Gipuzkoako selekzioarekin Frantziako Laplume herrixkan antolatutako ziklo-kroso lasterketan izan zen lehian.

Kadete mailan, Jokin Alberdi gipuzkoarra izan zen garaile, bigarren Simon Parribeau eta Inigo Altuna hirugarren postuan izan zen.

Asteburu honetan aldez, Bazpiko gazteak Ispasterren lehiatu dira, Euskadiko txapelketako azken proban.

— Agenda —

Osteguna 30, 18:00etan, Amaraun Ludoteka



Maitasuna lantzen ipuinen bitartez

Amaraun klubak ikasturte honetan ipuin-kontalari saio bereziak antolatu ditu. Hauetan haurrek ipuina entuzteaz gain, sentimenduak lantzen dituzte. 3-4 urteko haurrei, 2010 eta 2009 urteetan jaiotakoiei zuzendutako saioa izango da. erbi handia eta erbi txikiaren istorioa ezagutuko dute "Ezetz asmatu zenbat maite zaitudan" liburari esker. Istorioaz gain, asmakizunak, errepikapenak, begiradak... baliabide izango dira haurrek maitasunaren sentimendua barneratzeko.

Astelehena 17, 19:30ean

Urpeko zinema zikloaren azken saioa izango da.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANIZOKIA
Urtarrila bukaera arte

Paco Altuna herritarak Lasarte-Oriako hainbat eraikin zaharretako maketa erakusgai jarri ditu.



Andoain

Erakusketa

BASTERO KULTURGUNA

Otsailaren 28ra arte

Aitor Ruiz de Eginok aluminioz egindako eskultura eta margo erakusketa ikusgai dago.

Astigarraga

Zine-foruma

KULTUR-ETXEA

Astelehena 28, 18:00etan

Karmele Jaioren liburuan oinarritutako "Amaren eskuak" filma ikusi ahaliko da.

Hernani

Ipuin-kontalaria

BITERI KULTUR-ETXEA

Asteartea 28, 17:30ean eta 18:00etan

Apaxi ipuin-kontalariak etxeko txiki-txatzi bat saio eskainiko ditu, bata 17:30ean, 3-4 urtekoentzat, eta bestea, 18:00etan, 5-7 urtekoentzat.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 02, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Ernest eta Celestine" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,20 euro. Euskaraz.



Igandea 02, 19:30ean

Helduentzako zinea, "La gran familia española" komedia ikusteko aukera izango da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,40 euro. Gaztelaniaz.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 31, 20:00etan

Itzatu taldearen eskutik, "Sauna Deluxe" antzerki lanaz gozatzeko aukera izango da. Udalak herriko taldeen antolatutako antzerki amateurren barruko ekimena.

Ipuin-kontalaria

HAUR LIBURUTEGIA

Osteguna 30, 18:00etan

Lur Usabiagak ipuin-kontalarietako egingo du. 3 eta 5 urte arteko umeei zuzendutako saioa izango da.

Urpeko zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 03, 19:30ean

Urpeko zinema zikloaren lehen saioa izango da.

Astelehena 10, 19:30ean

Urpeko zinema zikloaren saioa izango da.

— Herritarren txokoa —

Odol-ateratzeak

Odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan gaur, urtarrilaren 27an, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzte, odola ordezkaezina da eta!

Marrakzi eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekunak ikastetxeko 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian marxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsua bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa. Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratz, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteok lokalean banatzen dira barakzi eta frutak, garia gariakoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gutuko dutenentzat ateak zabaltzen dituztela jakitera eman du Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidea.

Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira.

Erketz-eko Lagunak taldeak asteartetan dituzte saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berriz ostegunetan.

Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gazteboek ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

— Sarean —

Zientzia eta kultura bilgetia

Zientzia edo kultura arloan lanetan egin behar duzula eta ez duzu euskaraz informazio askorik aurkitzen. Hedatu, hedatu.euskomedia.org, euskal zientzia eta kulturaren liburutegi digitalean gai desberdinei buruzko artikulak aurki ditzakezu.

Euskomedia Fundazioak HedatuZ gordailuaren bitartez Eusko Ikaskuntzak 1918tik argitaratutako artikulak eta monografiak, eta 1907tik RIEV aldizkari argitaratutako zenbaki guztiak, euskal gizartearen esku jartzen ditu.

Hainbat gai jorratzen dituzten 5.000 artikulua baino gehiago dira, guztiak ere bere osotasunean irakur daitezkeenak. Antropologia, zientzia politikoak, arkitektura... gaiaren arabera edo urtearen arabera bilatu ditzakezu idatzia. Eta ATOM eta RSS erabiliz, HedatuZaren erabiltzaileak bere intereseko gaiak harpidetza ere egin dezake.

HedatuZek Eusko Ikaskuntzak argitaratutako edukia baino ez ditu biltzen, baina erakundeen arteko elkarlana eta edukien aniztasuna lantzeko gogoz jaio zen. Horregatik, beste erakunde kulturelei ere irekia dago, beti ere erakunde horiek Euskomediaren misioarekin bat egiten badute, hau da "euskal kultura eta zientziarekin zerikusia duten baliabide digitalak eta, orokorrean, baliabide bibliografikoak kontsultatzen erraztasunak ematea".



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858

txintxarri@txintxarri.info

Landaberri

IKASTOLA eta INSTITUTUA

MATRIKULAZIOA otsailaren 3tik otsailaren 14ra



**Zeure herrian bertan,
euskaraz**

▼ HEZKUNTZA PROIEKTU BATERATUA ETA GAURKOTUA, ESKOLA KOMUNITATEAK ADOSTUA

- 2 urtetik 16 urte bitartekoa
- Euskal kultura eta euskara bultzatzen dituen
- Herrian integratutako plangintza
- Atzerriko hizkuntza:
 - ingelesa 4 urtetik aurrera
 - frantsesa aukeran, DBHko 1.mailatik aurrera
- Teknologia berrien erabilera. Baliabide digitalak eta ikasgela guztietatik sareko konexioa
- Behar berezia duten ikasleentzat:
 - gela egokituak, laguntzako irakasleak, aholkulariak eta orientatzaileak
- Kirola, antzerkia, dantza eta bestelako eskolaz kanpoko jarduerak
- Garraio-zerbitzua
- Goizeko 08:00etatik 09:00etara harrera zerbitzua.
- Jangela zerbitzua



Bilerak:

- **DBH**koak otsailaren 4an 18:00etan Pintore kalea 2an
- **HH eta LH**koak urtarrilaren 29an 15:15ean Garaikoetxea eraikinean

Matrikulatzeko tokiak:

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO matrikulak. Ordutegia: 09:00etatik 13:00etara Garaikoetxea eraikinean • Tel.: 943 37 06 62 • landazuzendaritza@gmail.com

DBH-KO matrikulak

Pintore kalea 2an • Tel.: 943 37 28 90 • landabhi@euskaltel.net

Ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:30etik 11:30era

astelehena, asteartea eta ostegunean arratsalde 14:30etik 16:00etara